



# GAZTELEKUA HIZPIDE ETZI, TOPAKETA BATEAN

Informazioa jaso, iritzia eman eta ondo pasatzeko helburuz, topaketa egingo dute Katea etxean eta inguruetan >4

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2009-07-16**

VILURTEA 1.755 ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Lau egunez iraungo duen festaren iragarle izan zen atzoko txupinazoa; alegiarrek badute zer gozatua. N. URBIZU

## TXINTXARRIEN HOTSAK IREKI DIO BIDEA JAIARI

**ALEGIA** Karmen jaiak hasi ziren atzo eta ohi bezala ekitaldi ugari antolatu dituzte Udaleko Kultur Batzordeak zein Gaztetxeak 5



Umeek asko erabiltzen dute udako liburutegia; freskatu aurretik edo ondoren irakurri egiten dute. E. EZEIZA

## Irakurzaletasuna bultzatzeaz haratago

**TOLOSA** Jolasteko tokia, eguzkia hartzekoa, igerilekua eta liburutegia uztartzen ditu Usabalek; antolatzaileak «gustura» daude 3



Haurrek artelan ederrak egin dituzte Erletan. ASIERIMAZ

## Herriko artista txikiak lanean

**ARESO** Aste honetan 'Hi haiz artista!' izeneko egitasmoa ari dira lantzen, «arteaz gozatzeko» 7

**NAROA ANABITARTE** ZIENTZIALARIA

«Euskarazko lanek aldaketa eragin dezakete, oztopoak dauden arren»

**TOLOSA** Alzheimerrari buruzko tesia euskaraz aurkeztu du eta 'Cum laude' emaitza jaso du 2

**13. GARAGARDO AZOKA**  
**UZTAILAREN 16TIK - 19RA**  
*Ordutegia*  
**18:00etatik 1:00etara**

**VILLABONA**

## E Elkarrizketa

NAROA ANABITARTE Zientzilaria



HITZA

# «Oztopoak egon arren, lan hauek aldaketa bat eragin dezakete»

**Zientzia»** Alzheimerrari buruzko tesia euskaraz aurkezteko oztopo ugari gainditu behar izan dituen arren, 'Cum laude' emaitza lortu berri du.

## ENERITZ IRAOLA

Naroa Anabitartek (Tolosa, 1979) duela bost urte amaitu zituen biokimika ikasketak. Ordutik, EHUko Medikuntza eta Odontologia fakultateko neurozientzia laborategian ari da lanean eta UEUko osasun sailaren arduraduna ere bada. Alzheimerraren inguruan argitaratu duen tesiarekin *Cum laude* emaitzajaso du. Tesia euskaraz argitaratzeagatik zenbait oztopo gainditu behar izan dituen arren, ez du berriro ere euskaraz argitaratuko lukeela esatean inongo zalantzarik egiten.

**Zer ikertu duzu zure tesian?**

Biokimika ikasketak egin ditut eta nire tesia neurozientzien arlotik egin dut. Alzheimerraren zeri-kusia duten proteina batzuk ikertu ditut neuronetan zehazki non dauden ikusteko.

**Zerk bultzatuta erabaki zenuen tesia euskaraz egitea?**

Ni euskalduna naiz eta nire amahizkuntza euskara delako hartu nuen erabaki hori. Ez nuen euskaraz egiteko zalantzarik eduki. Gainera, hala izan behar duela uste dut. Bestalde, Euskal Herriko Uni-

bertsitatean eta beste unibertsitateetan oraindik gehiago, tesiak euskaraz egiteko oztopoak besterik ez dituzu. Horrek euskaldun asko ere, atzera botatzen dituela iruditzen zait. Euskara bigarren plano batean gelditzen da beti; azkenean ez dago hizkuntza tekniko euskaraz. Guretzat euskaraz lan egitea zaila den bezala hurrengoentzako ere hala izango da, zirkulo moduko bat sortzen da. Norbaitek apurtu behar du zirkulu hori eta guk egiten ditugun lan txiki hauek, lagundu dezaketela iruditzen zait. Norbaitek egin behar du zerbait egoera aldatzeko.

**Zein izan dira zailtasunak?**

Alde batetik, unibertsitate esparruan hizkuntza bera ez dago normalizatua. Hizkuntza tekniko ere ez dago, denbora guztian kontsultatzen aritu beharra duzu. Bestetik, eta agian oztoporik handiena izan zena, tesia aurkeztu aurretik ikertzeko gaitasun frogagaitan izan nuen. Tribunalak eraldaduna zen eta departamentuan kontrako jarrerak egon ziren. Bi zuzendari izan ditut bata euskalduna eta beste eraldaduna, garai hartan erdal-

duna bakarrik nuen. Batzuetan nik uste dut jendeak egoera horri aurre ez egiteagatik gazteleraz egiten duela.

**Tesia aurkeztean zailtasun berberak izan al zenituen?**

Tesia aurkeztean ez nuen hainbeste zailtasunik izan. Tribunalak osatu behar duten pertsonak bilatu behar nituen eta hori egiterakoan guztiak euskaldunak aukeratu nituen. Baina, tribunala osatu behar dutenek baldintza batzuk bete behar zituzte: katedradunak, unibertsitatekanpokoak... bilatu behar dituzu. Bila ibili behar duzu, baina kosta egiten den arren azkenean topatu egiten dituzu. Ez da ezinezkoa halako ezaugarriak dituen euskaldunak topatzea.

## «Zientzietan unibertsitateko bigarren eta hirugarren zikloetan ez dago ezer euskaraz»

**Oztopoak bai, baina euskaraz egiteagatik laguntzarik izan al duzu?**

Unibertsitateak berak ez du ezer ere bultzatzen. Nahiz eta beraiek esaneuskararen aldeko plangintzak eta dituztela ez da hala. Euskaraz zerbaitu bat dago eta nik filtro bat egiteko eskatu nien. Testua etahizkuntza teknikoak pixka bat

begiratzeko. Berez ez dago zerbaitu hori, irakasleen materiala bultzatzea bezala pasa zuten. Ez dago tesiak euskaraz egiteko bultzadarik, zure esku dago. Euskaraz oso testu gutxi daude, baina testuren bat euskaraz irakurtzen duzunean ere hitz bat honetarako, beste bat horretarako erabiltzen da. Normalizazioak ez dagoenez norberak azkenean bere erara egiten du lan. Ez dago benetako politikarik euskara bultzatzeko. Zientzietan, Unibertsitateko bigarren eta hirugarren zikloetan ez dago ezer euskaraz. UEU da hirugarren ziklo bat euskaraz egiten duen bakarra.

**Zure tesia osatzeko izan al duzu euskarazko bibliografia edo tesiatar jotzeko aukerarik?**

Artikuluak ingelesez irakurtzen ditugu ikasten ari garenean. Gazteleraz ere libururen batzuk badaude, baina euskaraz ez dut ia ezer irakurri. Euskarazko biokimikako liburu bat erabili dut zertxobait, baina oso gai zehatz eta espezializatuak direnez ez da erraza zuk nahi duzun gai zehatz horri buruz zerbait topatzea.

**Tesia beste hizkuntza batetara itzultzea pentsatu al zenuen?**

Euskaraz egin nuen tesia eta zuzendarietako bat eraldaduna izan arren zuzentzeko eskatu ez zidanez, ez nuen gaztelerara itzuli. Askok diratesia hizkuntza bat baino

gehiagotara itzultzen dutenak. Nik ez nuen halakorik egitea pentsatu. Euskaraz egin nuen eta hori nahikoa izan zen niretzat.

**Euskaraz egindako lanek prestijio gutxiago izaten dutela uste duen jendea ere bada. Zer uste duzu zuk?**

Horrekin ados ez nagoen arren oraindik uste hori zabaldua dago. Ingelesezko testuak dira prestijio gehien dutenak. Jende asko dago esaten duena euskaraz zertarako? Gauzak zientzia aldizkarietan publikatzen direnean azkenean ingelesez publikatzen dira, baina zure herrian euskaraz irakurtzen dutenak daude. Euskaraz ikertu nahi duzunean eskertu egiten duzu euskarazko materiala topatzea.

## «Euskara sustraietatik, unibertsitateetatik abiatutako prozesua izan behar luke»

**UEUko osasun sailaren arduraduna zara, horrelako proiektuek unibertsitatean euskaraz duen presentzia handitzeko balio dezaketela uste al duzu?**

Bai. Gure departamentuko jende euskalduna bildu ginen eta euskarazko liburu batean parte hartu genuen UEUekokin. Gu nahiz eta Euskal Herriko Unibertsitatean egon, liburu bat euskaraz argitaratu behar dugunean UEUkoekin egiten dugu. Neurozientzien liburu bat egin dugu eta oraintxe bertan ari gara azkeneko ukituak ematen. Baina azkenean zoritxarrez proiektu soil bezala gelditzen da. UEUk lagun dezakeela iruditzen zait, azken batean guztia euskaraz egiten duen bakarra baita.

**Orduan, unibertsitate esparrutik zer egin beharko litzatekeela iruditzen zaizu?**

Asko egin liteke unibertsitateetatik. Sustraietatik, hau da, unibertsitateetatik abiatutako prozesua izan behar luke. Hasiarik bultzatu beharko litzatekeen prozesu bat da. Klase denak euskaraz eman beharko lirarteke eta horrela agian euskaraz egiten duten generazio berriak aterako lirarteke.

**Beste tesiren bat egin behar bazenu, berriro ere euskaraz egingo al zenuke?**

Bai, inongo zalantzarik gabe. Euskaraz da nire hizkuntza eta alde teknikoak kenduta, askoz errazago idazten dut euskaraz. Askori gauza bera gertatzen zaie, baina batzuk ustez «errazago» den bidea hartu eta gaztelerara edo ingelezera itzultzen dituzte beren testuak. Ez dutesan nahi euskaraz idazteak zailtasun berezi bat duenik, beste hizkuntza guztietan bezalaxe da, baina normalizazio ezak zailtasunak ekartzen ditu. Oztopoak egon arren, lan hauek aldaketa bat eragin dezakete. Esparru honetan euskaraz egiten den gutxiagarrantzizua da.

# Liburuak irakurtzeko gune bat baino askoz gehiago

**Aisia** » laz bezala Usabal kiroldegira zabaldu dute Udal Liburutegiaren zerbitzua; arduradunak gustura daude izaten ari den erantzunarekin.

## ERREDAKZIOA

Udako iporrak, horrenbeste denboran itxarondako atsedean egunak ailegatzean, denbora nola pasa antolatu beharra dago. Usabal kiroldegia aisirako aukera paregabea eskaintzen du. Jolasteko tokia, eguzkia hartzeko, igerilekua eta liburutegia uztartzen baititu. Iaz ireki zuten udako liburutegia solarium berria, eta aurten ekimenarekin jarraitu dute.

Uztailaren leian ireki zituen atek eta ordutik egunero zabalik dago liburutegia, 15:00etatik 19:00etara bitartean. Susana Larre Udal Liburutegiaren arduradunak azaldukoaren arabera, oso gustura daude egitasmoak izan duen erantzunarekin. Iaz liburutegiko 100 txartel inguru egin zituzten, eta aurten ere jende asko hurbiltzen da. Bere hitzetan, «egunero egiten dizkigute txartel eskaerak, eta baita liburuenak ere».

Eguraldi ona egiten duen egunetarako pentsatua dago zerbitzua, eta batik bat, mementoko irakurketarako. Larrek azaldu bezala, «jendea bi edo hiru ordutarako etortzen da igerilekura, eta hauei eskaini behar zaien produktuak irakurketa arina izan behar du». Oro har, jendea ez da joaten eleberrir luzeen bila liburutegira, baizik eta, aldizkari edo liburuxka laburren eskean. Hori dela eta, liburu ez gain, mota guztietako aldizkariak, egunkariak, mahai-jokoak, margotzeko liburuak... aurki daitezke Usabalgoko txokoan.

Haurrak dira liburutegiko txokora hurbiltzera ausartzen diren lehenak. Izan ere, guraso askok oraindik ere uste dute zerbitzu hau

haurrentzat bakarrik dela, baina ez da horrela, bertaratzen diren guztiei zuzenduta baitago.

Iaz jarri zuten martxan udako liburutegia eta lehen esperientzia horren ostean zenbait aldaketa egin dituzte. Esaterako, bilduma. Liburutegiaren ohiko erabiltzailea nolakoa den aztertu ostean, horren arabera produktu gehiago erosi dituzte oraingoan. Hala, sukaldaritzaren, bidaiaren, naturaren eta abarren inguruko aldizkariak, hainbat egunkari... topa daitezke bertan.

Liburutegia egun eguzkitsuetarako pentsatua badago ere, gaintzekoetan ere zabalik egoten da. Izan ere, hauetan, kiroldegia barnealdean jartzen dute txokoa. Dena den, aurten, oraingoz, hiru edo lau egunetan besterik ez dute aldatu behar izan tokiz liburutegia.

Bizerbitzu mota eskaintzen dute liburutegiak. Alde batetik, kiroldegibertakoa dago. Non, han dauden produktuak maileguan hartu eta arratsalde horretan bertan itzultzen dituzun. Bestetik, Udal Liburutegiko bat eskatu eta hara eramaten dizute. Aranburu jauregira joan beharrik izan gabe.

## Irakurzaletasuna bultzatzeko ekitaldiak ere bai

Aurten estreinakoz, ipuin kontalariaren saioa ere antolatu dute Udal Liburutegikoek. Hala, Xantal Pinxel ipuin kontalariaren saioa izan zen atzo arratsaldean, solariumeko liburutegiaren gunean. Haur ugari bildu ziren bertan, korro batean bilduta, ipuin harrigarriak entzuteko asmoz.



Ipuinak, aldizkariak, egunkariak eta beste irakurtzeko aukera dago; baita margotzen aritzeko ere. E. EZEIZA



Eguraldi bikaina egiten zuten atzo, eta jendez lepo bete zen Usabal kiroldegia kanpoaldeko solariuma. E. EZEIZA



Xantal Pinxel ipuin kontalariaren saioaz gozatu ahal izan zuten atzo arratsaldean, haurrek. E. EZEIZA



# ALEGIAKO UDALA

GUREAN EZ DA BETI JAI  
BAINA BADIRA MILA MOTIBO  
KANTATZEKO, DANTZATZEKO ALAI,  
AGUR BAT ETA OROITZAPENEAN BESARKADA  
GUREKIN EZ DAUDENAI

**ONDO PASA FESTAK!!!**

Plaza Nagusia z/g • Tel.: 943 65 30 16 • [www.alegia.net](http://www.alegia.net)





Gaztelekua Katea etxean kokatuko da eta eraikin horren inguruan egingo dute etziko jardunaldia ere. I. GARCIA

## Gaztelekuari buruzko ideien eta iritzien topaketa antolatu dute etzirako

**Villabona** » Gaztelekuari buruzko informazioa jasotzeko, iritzia emateko eta ondo pasatzeko aukera izango da jardunaldian.

IMANOL GARCIA

Villabonako Udalak bultzatuta, etzi Gaztelekuaren inguruko ideien eta iritzien topaketa egingo dute Gaztelekua bera izango den Katea etxean eta inguruetan, 11:30etik aurrera. «Informazioa jaso, iritzia eman eta ondo pasatze-

ko aukera izango da», azaltzen du Beatriz Mena Gazteria eta Kirol teknikariak. Orain arte egindako lanaren berri emango da panelen bidez eta hainbat aukera izango dira iritzia emateko.

Gaztelekuari forma ematen joateko parte-hartze prozesua egin da lan-taldeekin, bilerak eginiz herriko gazteen, elkarten eta eragileen ekarpenak jasotzeko. Hor bildutakoa erakutsiko dute etzipanelen bitartez. Egun horretan, lan-taldeetan parte hartu ez dutenek (eta hauetan parte hartu dutenek ere bai, noski) aukera izango dute

Gaztelekuari buruz duten iritzia emateko. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Gurasoei parte-hartzea errazteko, haurtzaindegi zerbitzua izango da 11:30etik 13:30era Katea etxean bertan.

### Iritziak emateko aukerak

Ekarpen horiek egiteko hainbat modu izango dira. Alde batetik, informazio paneletan bertan iritzia emateko aukera izango da edo horretarako izango diren orrietan. Kutxa beltz bat ere jarriko da bideo batekin, bertan sartu eta iritzia grabatzeko. Bestalde, mahai-inguru

### » EGITARAUA

- **11:30.** Jardunaldiari hasiera emango diote. Informatzeko, iritzia emateko eta ondo pasatzeko aukera izango da.
- **12:30.** Mahai ingurua, *Gaztelekua zer da?* izenburupean.
- **13:30.** Luntxa Gaztelekuaren beraldian.

bat izango da eta bertan ere parte hartu ahaliko du jendeak ekarpenak eginiz.

Mahai-inguruaren izenburua *Gaztelekua zer da?* izango da eta bertan parte hartuko dute Edurne Soraluze Elgoibarko Gaztelekuaren koordinatzaileak, Hodei Ezeiza Villabonako Gaztelekuari buruzko prozesu parte-hartzailearen koordinatzailea eta Natxo Torne eta Leire Irastorza kale hezitzaileak. Esan bezala, bertan herritarren parte-hartzea guztiz ongi etorria izango da.

Ondo pasatzeko aukera ere izango da. Hala, ping-pong txapelketa eta mus txapelketa antolatu dituzte. Lan-taldeetan parte hartu duten nerabeek proposatutako ekintzak izan dira. Etziko jardunaldiari buruzko kartelak ere jartzen aritu dira. Luntxerako erosketa eta prestaketa ere jardunaldiara azaltzen diren nerabeen laguntzarekin egitea nahi dute antolatzaileek. «Garrantzitsuena da nerabeek beraiek izatea ekintzaileak», zehaztu du Menak.

### Nerabeak eta elkarteak erakarri

Gazteria teknikariak azaltzen duenez, etziko jardunaldian herritar oro joatea nahi dute. «Nerabeak eta elkarteak erakarri nahi ditugu. Proiektua askoz hobeto aterako da gero eta jende gehiagok parte hartzen badu». Gaztelekua dinamiko izatea nahi dutela dio Menak. «Horregatik, etziko jardunaldian herritarrek, eta bereziki nerabeek, beraien iritzia emateko aukera aprobeatzeko deia egiten dugu». Parte-hartzea bultzatzeko ekimen bat jartzea otu zaie. Ekarpen bat egin edo iritzia ematen duen orori, eta berak nahi izanez gero, Gaztelekuaren horma batean bere izena jartzeko aukera izango du.

Etziko topaketaren ekarpenak eta parte-hartze prozesuan bildutakoak irailan eta urrian zehar egiaztatu egingo dituzte eta hortik gauzatuko dute Gaztelekuaren proiektua.

## Ezpondak egonkortuko ditu Aldundiak GI-2631an, Asteasun

### ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak GI-2631 errepidean, Asteasun, ezpondak egonkortuko ditu. Hain justu, Diputatu Kontseiluak onartu egin du lizitaziora ateratzea errepide horretako 3,910-4,005 kilometro puntuen artean ezpondak egonkortzeko proiektua. Aurrekontua 565.000 eurokoa da (aurrekontu horretan GI-3440 errepidean, Lezon, egingo diren obrak ere kontuan hartzen dira) eta obrak egiteko epea hiru hilabete-koa izango da.

GI-2631 errepidean, Asteasun, malgutasun muga altuko altzairuko eronboide-sare bat jarriko da kaltetutako azalera guztian, 95 metroko luzera eta 12 eta 15 metro bitarteko altuera aldakorra dituen. Aldez aurretik, egun dagoen hormigoizko hesia kendu eta hormigoizko horma botako da.

## Gaur eta etzi Transernio Txapelketako partidak izango dira Adunan

### ERREDAKZIOA

Adunako pilota eskolako gurasoek antolatzen duten Transernio Pilota Txapelketaren partidak jokatu dira gaur eta etzi herriko frontoian. Gaurkoan alebin eta infantil mailan jokatu dira, 19:00etan hasita. Alebinetan, Aduna A-Villabona eta Amezketa-Azkoitia izango dira norgehiagokak. Infantiletan Lasarte-Amezketaren eta Andoain-Bidegoian izango dira partidak.

Etzi benjamin eta kadete mailakoak ariko dira partidak jokatzeko, 16:00etan hasita. Benjaminetan Aduna-Bidegoian eta Andoain-Amezketan ariko dira lehia eta kadeteetan Aduna-Alegiu eta Añorga-Alkiza.



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **5 afari bikoitz** ditu

Uztailaren 16 eta 19 bitarte ospatuko den

**Villabonako Garagardo azokarako**

irekita 18:00etatik 1:00etara



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula osteguna 14:00ak arte

hitzak hitza

**NEREA URBIZU**

**A**legiak eztanda egin du txintxarri guztiak mugimenduan jarriz. Karmen jaiak hasi ziren atzo, txintxarriaren igoerak hala iragarritz. Aurten suziria Alegiara bizitzera etorritako etorkin batzuk bota zuten, modu honetan herriko jaiak herriarrek in ospatzeko bidea eman ez eta erraztuz.

Datozen lau egunetan zehar festarako aitzakia izango dute alegiarrek eta baita inguruko herrietakoek ere; aukerak behintzat, badituzte: zahagi ardoan ez bada, tabernetako giroan, bestela kontzertuetan edo dantza emanaldietan.

Kartel lehiaketako lan guztiak ikusgai zeuden udaletxeko arkupeetan; baziren batzuk. Aldi berean, musika ere entzuten zen, batez ere Giroarte taldeko dultzaineroen taldeak sortutakoa. Eguraldi onak eta ia beroak ere lagundu zuen egunetan zehar eta festa usaina goizean goizetik somatzea erraza zen. Dena den, buruhandiek mugiarazten dute jende gehien: kasu honetan haur eta gaztetxoak korrikari ibili ziren alde batetik bestera, zakutoak eskuan izanik baten batek barre egin zuen baina izan zen negar egin zuenik ere.

**Marrazki guztiak «politako»**

Aurten ere festetako logoarekin kamixetak egin dituzte. Anne Agirrek eta Mitxel Iribarrenekin egin dute irudia, batek marrazkiak eta besteak letra dotoreak. Marrazki gehiago, hala ere, izan dira. Izan ere, festetako egitaraua diseinatzeke orduan, azalean Jennifer Dos Reisen marrazkia aukeratu dute, eta kontrazalean Aitor Aramendirena. Jakin zuten zer islatu bertan: batean, Alegia munduan kokatu dute eta bestean, buruhandiak. Sariak banatu zituzten balakoian.

**Gaztetxea kirolarekin hasi da**

Herriko festetan ez da ohikoena kirolarekin hastea, baina Alegiako Gaztetxeok hala egin zuten: Xantosen omenezko areto futbol Txapelketako finala jokatu zuten Tokyok eta Lk. Ondoren, suziria bota zuten.

Gaur 20:30ean zahagi ardoa izango dute. Jarraian, Vice presi-



Txupinazoaren aurretik erraldoiekin, buruhandiekin eta dultzaineroekin kalejira egin zuten Larraiztik abiatuta. N.U.

Karmenak iritsi dira eta herritar guztiak lekua izango dute datozen egunotan; Txintxarriaren igoera egin zuten atzo plazan eta Gaztetxeak suziria bota zuen Bulebarretik, datozen lau egunetako bidea irekitzeko.

# Txintxarriak dantzan



Areto futboleko Xantosen omenezko finalean aritu ziren. Irabazle, azkenik L izan zen, Tokyori 6-0 irabazita. N.U.

dentes gasteiztarrak eta Lapurdiko Willis Drummond taldeen kontzertuak entzun ahal izango dira. 23:00etan hasiko dira Bulebarrean. Willis Drummond taldearen zuzeneko gogorra da, basatia. Pearl Jam, Soundgarden, Audioslave, edota Dut taldeekin antzekotasunak ditu.

Vice Presidentes 2005ean sortu zen. Taldearen izena zeraman demoa argitaratu zuten eta kontzertu batzuen ondotik, taldeak «gorrotoari disko itxura emateko garaia heldua zela erabaki zuen». Honen emaitza *Basque Street Boys* (2007) diskoa izan zen. «Grindcorea, basakeria, abiadura... gorrotoa» jorratzen dute.

## Iragarki laburrak

**LANA**

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, moketak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe. 638 944 604 (Gurutze) eta 695 708 271 (Belen).



Hainbat lurraldetako alegiarrek bota zuten txupinazoa. Azkenean Danitza Rosillok ez zuen joaterik izan, baina bai Beatriz Stipetichek (bere ama). N.U.



Euskal presoak ere gogoratu zituzten txupinazoaren garaian. N.U.

**MURUA**  
arraindegia

Jai zorientsuak opa dizkizuegu!

San Juan kalea 30, Alegia



# «Sentsazio onarekin» amaitu zuen Caminosek lehen saiakera

**Tolosa** » Etzi egingo du Patxi Caminosek Txindoki 24 ordutan gutxienez 12 aldiz igotzeko bigarren saiakera mendian bertan.

REBEKA CALVO

Geroz eta gertuago dago abuztuaren 8a eta Abaltzisketan bizi den Patxi Caminos tolosarra ere geroz eta urduariago dagoela dio. «Tentsioa handituz doa, urduritutuna nabari dut, lo ere ez dut horren ondo egiten...», argitu du.

Urtarriletik ari da entrenatzen, hasieran Leaburu eta Belauntza inguruan, eta orain Txindokira gerturako garaia ere iritsi zaio. Lehen saiakera pasa den larunbatean egin zuen, 06:00etatik

15:00ak inguru arte ibili zen mendian, eta «sentsazio onarekin» amaitu zuela esan du. Okerrena, hala ere, beroa izango dela dio: «Larunbatean beroa egin zuen eta honek iagoera zailtzen du, horregatik saiatuko naiz proba egunean lanik gogorrena gauzez egiten». Guztira bost aldiz igo zuen Txindoki eta entrenatzaileak orain erresistentzia landu behar duela esan dio.

Bigarren saiakera etzi egingo du. 12 orduz ibiliko da Txindokin gora eta behera eta gauzez ere ibiliko da, «honi ere tankera hartzeko», argitu du.

**Federazioak, kale oraingoz**

Patxi Caminosek Iker Karrerak 2004ean egindako marka hobetu nahi du. Karrerak orduan, 11 aldiz igo zuen Txindoki 24 ordutan, eta



Txindoki gutxienez 12 aldiz igotzen saiatuko da Patxi Caminos. R. CALVO

Caminosek gutxienez 12 aldiz igo nahi du.

Data ere, abuztuaren 8a, horregatik aukeratu du, nahiz eta beroa egiteko aukera asko dituen. «Amezketarrak proba uztaillaren 3In egin zuen eta nik ere garai bera aukeratu behar nuen». Euskal Mendi Federazioak marka erregistratu zion Karrerari eta Caminos ere horretan saiatu da, baina azkenean ez du lortu. «Oraingoz ezezkoa jaso dut, ez dute etorri nahi diotenez jende nahikoa ez dutelako, baina beste saiakeraren bat egiteko asmoa ere badugu. Lortuko ez bagenu, hala ere, marka jasotzeko herritar talde bat bilduko nuke lekukotasuna emateko», argitu du mendizaleak. Etzi Txindokin bertan egingo duen saiakera eta gero Ibarra ingurura bueltatuko da entrenatzeri. «Suabego ibili ko naiz azken asteetan», argitu du.

**Dieta makrobiotikoa**

Caminos orain urtebete hasi zen dieta makrobiotikoa jarraitzen eta oraindik ere horretan darrari.

Txindokiko erronka dieta makrobiotikoa jarraituta ere osasuntsu egon daitekeela erakusteko egingo du eta 12 aldiz igotzea lortzen ez badu ere lan txukuna egingo da nahikoa izango dela dio.

## Hobetzen joatea espero dute Xabi Fernandezek eta Iker Martinezek

**Ibarra** » Asteartean hasi zuten bi kirolariek Italiako 49er mailako munduko txapelketa eta igandera arte ariko dira horretan.

ERREDAKZIOA

Haizea harrotu zain zeuden atzokoan Xabi Fernandez eta Iker Martinez 49er mailako munduko txapelketaren bigarren jardunaldiari ekiteko. Txapelketa asteartean hasi zen Italiako Di Garda laku eta igandean amaituko dute.

Bikoteak esandakoaren arabera, lehen jardunaldian ez ziren oso txukun ibili. Oso berandu bukatu zuten eta mastan aldaketa batzuk ere egin behar izan zituzten.

Hiru txanda egin zituzten, bi jarraian eta hirugarrena bi ordu beerranduz.

Lehen bietan asko sufritu zutela esan dute kirolariek, izan ere 15 korapiloko haizea izan zuten, «ondo joatea espero genuen, baina ezin genuen hautsian joan, ontziak abiadura hartu zuen eta estropadak horren estuak izanda, ezin izan genuen borrokatu», argitu du Iker Martinezek.

Lehen jardunaldia, hala ere, kontentu bukatu zuten bi kirolariek, izan ere, egoerari buelta emate ere lortu zutela nabarmendu dute.

Bikotearen hitzetan, txapelketa honetan bi arazo nagusi dituzte: masta berria ez dutela oraindik ondo ezagutzen eta Volvo Ocean

Racenbederatzi hilabetez egon eta gero ez dutela 49er mailako ontzia lehen bezala menperatzen. Hala eta guztiz ere, lan txukuna egingo dutela uste du bikoteak.

Xabi Fernandezek argitutakoaren arabera, guztira 100 ontzi ari dira Italiako 49er mailako munduko txapelketan. Hiru taldeetan banatu dituzte lehenik, eta ostiraletik aurrera ere urrezko, zilarreko eta brontzezko mailatan banatuko dituzte.

Lehen egunetan, asteartean, 13:00etan hasi zuten txapelketa eta atzotik goiz eta arratsaldez ari dira probak egiten. Garrantzitsuen, dena den, «17 txandetako programa osoa bukatzea eta azken eguneko Medal Racea bukatu ahal izatea da», esan du Fernandezek.

## Asteburuan hasiko dira etxeetara joaten argazkiak ateratzera

**Berastegi** » Teknikariak eta batzordekideak asteburuan joango dira 'Berastegiko Lorez Blai' txapelketan izena emandakoen etxeetara.

ERREDAKZIOA

Larunbatean eta igandean pasako dira Berastegiko Kultura Batzordeko kideak zein teknikariak *Berastegi Lorez Blai* izeneko txapelketan izena emandakoen etxe ondoetara argazkiak ateratzera eta baita ikuskapenak zein balorazioak egitera.

Ateratzen dituzten argazkiak webgunean jarriko dituzte eta bai-

ta udaletxean zein Gaztainondo Elkartearen ere, herritarrek bozkatzeko aukera izan dezaten.

Puntuaketa honakoa izango da: %50 udal batzordekideak eta lorezaintza teknikariak emango du eta beste %50 Berastegiko webgunean, Gaztainondon eta Udaleren bulegoetan herritarrek emandako bozkei esker banatuko dute.

Bozkek hilaren 20etik 30era eman ahal izango dira eta pertsona bakoitzak bi bozka eman ahal izango ditu, jardinen txapelketarako, bata, eta balkoia, terraza edota leihoetarako, bestea.

Sariak herriko jaietako, sanlontzotako, herri afari ostean banatuko dituzte, hau da hilaren 7an.



FESTA ONAK PASA  
HERRIKOAK ETA  
KANPOKOAK!

ALEGIA  
Tel.: 943 65 30 12

## MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta  
Bataioak, Jaunartzeak...

*Jatetxea*

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Galdaragintza

**BURNI, S.L.**



Errotalde, 24 • Tel.: 943 653112 • Faxa: 943 655532  
ALEGIA



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Erleta Eskolako jangelan, aste honetan artelanak egiten ari dira haurrak. A. IMAZ

Leitzako Udako Tailerretan «gustura» ibiltzen dira haurrak. Aste honetan 'Hi haiz artista!' izeneko egitasmoan murgildu dira: «perfekzioa ahaztuz eta artearen munduaz gozatuz».

## Artista txikiak lanean

ASIER IMAZ

**A**stea joan astea etorri Udako Tailerrek ez dute atsedenaldirik hartzen. Eskola garaia amaitu baldin bazituzten ere, bertara gerturatzen diren haurrek ikasten jarraitzen dute. Hori bai, jolasaren bitartez.

### 'Hi haiz artista!'

Erleta Eskolako jangelan irudimena hasi ziren lanean haurrak astearen hasieran. Udako Tailerren

lehen astean, inguruko mendi batetatik zuhaitzen hostoak bildu eta idortzen jarri ondoren, astelehenean orri desberdinetan itsatsi zituzten.

Artistakerien bigarren egunean, herenegun, gauza garrantzitsu bat ikasi zuten haurrek: «Kolak batzutan ez duela nahi bezala itsasten». Etzuten etsi ordea, atzo egindako saiakera horren adibide.

Hori bai, lanak atzeratu ez zitezten, lehenik eguneko eskulana

amaitu zuten: kristalezko potectan kolore anitzeko gatza sartu zuten, ortzadar ederrak sortuz.

Ondoren, zorrak zor eta kola berriarekin, aurreko eguneko lana amaitu zuten: kristaletan itsasten ziren koadro koloretsuak.

*Hi haiz artista!* tailerra amaitzean, makinekin hasiko dira jolasean Leitzako haurrak. Horretarako lehenik ezagutu egin beharko dituzte, ondoren «beldurrik gabe» irudimena martxan jartzeko.



## Herri kirol jaialdi oparoa antolatu dute hilaren 18rako

**Alegia** » Gipuzkoako Lasto-jasotze Txapelketa eta IV. Txintzarri Harria Saria jokatu dira etzi 18:30etik aurrera.

### ERREDAKZIOA

Alegiako Jaietan herri kirol jaialdia antolatu dute hilaren 18an, etzi. Larraitz auzoko plazan, 18:30etik aurrera, Gipuzkoako Lasto-jasotze Txapelketa eta Alegiako IV. Txintzarri Harria Harrijasotze Saria jokatu dira.

### Lasto-Jasotze Txapelketa

Gipuzkoako Txapelketa 18:30ean hasiko da etzi Alegian. Bertan 6 lasto-jasotzailek hartuko dute parte, hauen artean bi zizurkildar egongo dira: Pello Argia eta Kandido Aizpurua.

Egin beharreko lana ondorengo izango da: kirolari bakoitzak 2 minutuko txanda izango du 45 kiloko lasto-fardoarekin ahalik eta jasoaldi gehien egiteko. Lasto-fardo hori lurretik 7,5 metrora goratu beharko dute.

### IV. Txintzarri Harria Saria

Laugarren urtez jokatu da Alegiako Txintzarri Harria Saria. Iaz bikoteen arteko lehia izan zen, baina hilaren 18an hirukoien arteko lehia izango da. Lehen taldean, familia bereko kirolariak ariko dira: Joxerramon Iruretagoiena, Izeta II.a; Jexuxmari Iruretagoiena, Izeta III.a, eta Hodei Iruretagoiena, Izeta IV.a.

Bigarren taldea ondorengo harrijasotzaileek osatu dute: Aimar Irigoienek; Juanjoxe Unanuek, Goenatxok, Unai Bertizek.

Herri kirol jaialdia 18:30ean hasiko da, nahiz eta harrien pisaketak 17:30ean egingo diren.

Egin beharreko lana ondorengo izango da: «125ekoarekin, talde bakoitzeko harri-jasotzaile bat ariko da 2 minutuko txandan.

112,5ekoarekin, talde bakoitzeko harri-jasotzaile bat ariko da 2 minutuko txandan.

100eko zilindroarekin, talde bakoitzeko harri-jasotzaile bat ariko da 2 minutuz.

100eko bolarekin, bikote bakoitzeko bi harri-jasotzailek txanda librean ariko dira 3 minututan».

## Laburrak

### Argazki lehiaketan parte hartzeko azken egunak

**LEITZA** • Festa Batzordeak antolatutako argazki lehiaketara aurkezteko epea bihar amaituko da. *Leitzako Pestak* izeneko lehiaketan parte hartu nahi dutenek argazki bakar bat aurkeztu ahal izango dute, Karrape Irratian edo Gazte txeko postontzian. Argazkia edozein urtetakoa izan daiteke eta gutunazal handi batean aurkeztuko dute. Barnean, gutun-azal txiki batean, egilearen datuak idatzi beharko dira. Argazki ugari biltzen badira, Festa Batzordeak 15 onenak aukeratu ditu, hauekin erabusekin bat jarriko duelako abuztuaren 12an, Karrapen.

### Igerilekuan herritarrentzat festa berezia bihar gauean

**LEITZA** • Gazte Asanbladak, Gizar-te Zerbitzuek, Kiroldegia eta Igerilekuak egitasmo berezia antolatu dute bihar 22:30ean Leitzako igerilekuan: *Gozamenez beteriko ur festa*. Jaira joateko euro bateko sarrera ordaindu behar da baina erabat sinbolikoa izanen da, izan ere, sarrera horren trukean edari bat dohainik edateko aukera egonen da igerilekuko tabernan.

**Zuzenketa.** Atzoko alean «Alberto Vazquez garaile, Espainiako Triatloi Txapelketa», argitaratu genuen, baina Alberto Vaquero da zuzena. Barkatu eragozpenak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



30°  
15°

GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	19°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralea:** 687 410 034. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Alegia.** Karmen jaiak: Diana 09:00etan, Iraunkorrek txaranga 11:00etan, herriko dantzariak 12:30ean, haur jolasak 17:30ean eskolan, jubilatuen patata tortila lehiaketa 19:00etan, Unsain eta Karrera trikitilariak 19:00etan, Egaña, Arzallus, Sarriegi eta Agirre bertsoariak 22:30ean Kultur Etxean.

■ **Villabona.** Garagardo Azoka Txermingo ikastolan, 18:00etatik 01:00etara.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Breve encuentro* filma emango dute Leidor aretoan gaur 19:30ean eta etzi 22:30ean, jatorrizko bertsoian.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Maider Oviedoren argazki erakusketak herriko ostatuan.  
■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketak eta Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketak Aranburu Jauregian.  
■ **Tolosa.** Uztaila osoan Zumarragako Itziar Albusuaren oleoak ikusgai Lanbroan: paisaiak, zuhaitzak, bodegoiak, ... marraztu ditu.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubini hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodillo eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkartearen berritasan.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 670915.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.



## Berazubikoan ere badago aukera

**TOLOSA** • Usabalgo igerilekuan jende gehiegi dagoela esaten duenik bada. Hauek ere Tolosan bertan badute beste aukeraren bat. Hain zuzen ere, Tolosako Berazubi zelaiko igerilekua. Izan ere zabaldu ditu jadanik atek kanpoan dagoen igerilekuak. Bertan sartu nahi duten bazkideek 4 euro ordaindu beharko dute (2 euro 17 urte azpikoentzat). Ez bazkideak ere sar daitezke, 6 euroren truke (3 euro 17 urte azpikoentzat). N. LATABURU

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Enaitz.** Zuk segi lan asko egiten. Muxu bat etxekoan partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak  
ezkontzak - jaioberriak  
jaunartzeak...

# agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>